

1.- Zer da literatura?

1.- Zer da literatura?

Hitz *literatura* latindarretik *litterae* dator (grekoak ez du inongo terminorik ezagutzen nozio honetarako). Terminoa darabil Kintilianok (rhetor bat, hau da, irakasle bat) lehen aldiz bere *Institutiones Oratoriae*. Kintilianok erabiltzen zuen hitz literatura bi zentzuekin: 1) termino greziarra γραμματική (gramatika, hau da, hizkuntzaren araua) itzultzeko, eta 2) letren ezagueraz (erudizioa) jarduteko.

Hitzaren erabilera hau garatzen da letren irakaskuntzan oinarritutako heziketa-modeloaren barruan, hots: ikasleak jakin behar du irakurtzen eta zuzenki idazten, egile klasikoen testuak zuzenki azaltzeko gai izateko; ikasleak hori egiten badu, era zuzenean (hau da, era etikoan) pentsatzen ikasiko du; trebetasun horretara heltzeko, ikasleak testu klasikoak imitatu behar ditu, kalitate-modelo onenak direlako.

Funtsean, nozio hau ez da aldatuko XVIII-XIX. mendeetara arte. Hala ere, hitza gutxi erabiltzen da 1732ra arte. Urte horretan, Espainiako Akademia Errealaren "Autoritate Hiztegia" argitaratzen da. Hiztegi honetan, hitz "literatura" hurrengo definizioarekin agertzen da: "ezaguera eta letren zientzia". Hortik, nahiz eta aldaketa batzuk egon, gaurko esanahia osatzen ari da.

Gaur egun, *RAE*-ren Hiztegiak dio literatura hizkuntzan oinarritutako jarduera artistikoa dela. Hala ere, gainera, terminoa darabil herri bateko berezko ekoizpen literarioetara kontatzeko (literatura persiarra, adibidez), beste adiera batzuen artean:

RAE-ren Hiztegia:

"Literatura"

Del lat. *litteratūra*.

1. f. Arte de la expresión verbal.

2. f. Conjunto de las producciones literarias de una nación, de una época o de un género. La literatura griega. La literatura del siglo XVI.
3. f. Conjunto de las obras que versan sobre una determinada materia. Literatura médica, jurídica.
4. f. Conjunto de conocimientos sobre literatura. Sabe mucha literatura.
5. f. Tratado en que se exponen conocimientos sobre literatura.
6. f. coloq. palabrería.
7. f. Mús. Conjunto de obras musicales escritas para un determinado instrumento o grupo instrumental. Literatura pianística.
8. f. desus. Teoría de las composiciones literarias.

Beraz, literatura hitzaren erabileraz baliatzen den adierazpen artistikoa da. Hitzeen bitartez, era artistikoan, olerkariak sentrazioak, irudiak eta deskribapenak eraikitzen dituzte, kontaketa erreal edo itxurazkoak sortzeko. Hala ere, literatura-esanahia zabala da. Honela, hitz berbera erabiltzen dugu herri bateko, edo hizkuntza bateko, edo garai bateko ekoizpen literarioko taldeari buruz hitz egiteko, edo, adibidez, eskolan ikasten den irakasgaia jarduteko.

2.- Literaturaren ezaugarriak:

a) Jatorria:

Literatura oso adierazpen artistiko zaharra da. Gauzak horrela, jatorria ezartzea zaila da. Egia esan, lehen ekoizpen literarioak ahozkoak izan ziren, adibidez Homeroren *Iliada* eta *Odisea*. Honela, esan dezakegu literatura bai gizakia hain zaharra dela. Hala ere, Gilgamesh-Olerkia idatzitako aurkitutako literatura-lan zaharrena da. Bere antzinatean bigarren milurtekoko Kristo baino lehen dela kalkulatu da.

b) Generoak:

Literatura genero desberdinek edo literatura-lanak bere edukien eta egituren arabera sailkatzea baimentzen duten kategoriek osatuta dago. Literaturaren genero nagusiak dira:

Narratiba: kontaketa erreal edo itxurazko kontaera labur edo zabalak; Narratiba kontalari baten presentzia beti dauka; kontaera eta eragina (drama) batera agertzen dira.

Lirika: Guztiok ezagutzen dugun poesia konbentzionala da; poesia lirikoa musikarekin lotu behar da; baliabide literario eta adierazkorreko erabilera zabala egitea bereizgarri du; kontaerarik, ez eraginik ez dago eta "ni"-a nagusitzen da.

Drama: antzezlanetako testuak (tragedia, komedia); eragin hutsa bereizgarri du.

c) Korrante literarioak:

Korrante literarioak aldi jakinaren berezko laneko multzoa dira. Honela, lan hauek ezaugarri batzuk partekatzen dituzte: gaiak, estiloa, ideologia, etab.; adibidez, erromantizismoa, abangoardismoa, errealismoa, surrealismoa, beste batzuen artean.

d) Funtzio poetikoa:

Guztiak dakigun bezala, nahiz eta beti garrantzitsuena komunikazioa izan, hizkuntzak funtzio desberdinak ditu. Literaturako hizkuntzak funtzio poetikoa du (hau da, idazleak forma eta estiloa zaintzen ditu, efektu estetikoa lortzeko). Beraz, funtzio poetikoaren asmoa ez da irakurleari informazioa ematea, bere adoneari eragitea baizik.

e) Hizkuntza konnotatiboa:

Erabilera eta hitzetako edo esaldietako aukerarik ez da ustekabekoa, interpretazio desberdinak sortzea nahi denez gero. Hizkuntza konnotatiboak esanahi subjektiboak sortzen ditu; hortaz, irakurle batek gauza bat ulertuko du eta, bere esperientziak desberdinak direnez gero, beste irakurle batek gauza desberdin bat ulertuko du.

f) Originaltasuna:

Literatura-lanek egilearen sormenean jatorria dute. Horregatik, gai berak (erreal edo itxurazko) tratatzen dituzten literatura-lan asko daude. Kontua da literatura-lan guztiak desberdin eta bakarrak direla.

3.- Literaturaren Definizioak

Esan denez gero, "literatura" hitzak *littera* latinean ("letra" edo "idatzitakoa") etimologikoki jatorria du. Beraz, hitz literatura idaztearekin lotuta dago. Hala ere, bereizmen honek ahozko literatura, lehen manifestazio literario ezaguna dena, kanpoan uzten du. Horrela gauzak, Aristoteles-i jarraituz, "hitzaren artea" bezala literatura definitzea hobe da. Hori bai, Historian zehar, adostasunik ez da egon literaturaren definizio unibertsalera heltzeko. Horrela gauzak, Todorov-i jarraituz, egon diren bereizmen askoak elkar ditzakegu egiturazko bereizmenetan, funtzionaletan eta semiotiketan.

a) Egiturazko bereizmenak (Forma).

Bereizmen-mota hauek bere jatorria dute Aristotelesengan (poesia *mimesis* da); helburu bat bezala hizkuntza berez gaurkotasuneraino iristen da erromantiko alemaniarren, sinbolismoaren, Errusiako formalismoaren eta New Criticism-aren bidez. Adibidez, Roman Jakobson formalistarentzat (1896-1982), literaturak "hartzen duen mezuko mota hori izendatzen du

objektuagatiko bere forma, eta ez bere edukia”.

b) Bereizmen funtzionalak (Forma eta Edukia).

Bereizmen hauek kanpoko zerbaiti dagokionez literaturara bereizten dute. Esate baterako, kritika marxista hartzen duen perspektiba da: kritika marxistak uste du literatura dinamika sozialean, ideologian, espazioan eta denbora batean sartuta dagoela, eta, horregatik, testuinguruak munduaren ikuspegi zehatz bat zehazten du.

c) Bereizmen semiotikoak

Semiotikak zeinu linguistikoaren portaera ikertzen du ingurune sozialean eta, testuinguru horretan, literatura kode bateko adierazpen zehatza da. Bereizmen-mota hauek azaltzen dute literatur gertakaria beste ekitaldi komunikatibo bat dela eta, ondorioz, jaulkitzailea, hartzailea, berezko testuingurua, etab., beti dagoela.